1. Sailkatu hitz elkartu hauek taulan:

sartu-irten ezti-mingots begigorri angelzuzen guraso-elkarte

gor-mutu itxarongela gidabaimen jan-edan telefono-zenbakia

Izena + izena	Izena + izenondoa	Aditza+ izena	Izenondo+ izenon	Aditza + aditza

2. Adierazi lotuta (L) ala marratxoz (M) idatzi behar diren:

harri + koskor heldu + muga zuri + beltz

kopeta + ilun hartu + eman egon + gela

3. Jarri G gaizki idatzita dauden hitzen ondoan eta O ongi dauden hitzen ondoa. Gero, gaizki daudenak berridatzi ongi:

laranjaur jostorratz salerosi

bidezidor aparkaleku ibil-bide

zuriurdin gera-leku jantzi-denda

jarleku luzelabur zebrabide

4. Adierazi hitz elkartu hauen osaera, ereduan bezala:

ikasgela: ikasi (aditza) + gela (izena)

lanegun : ( ) + ( )

hankaluze: ( ) + ( )

polit-eder: ( ) + ( )

5. Idatzi aditz hauen atzean I (indikatiboa), AH (ahalera) edo AG (agintera)

Manex, eser zaitez hango aulkian!

Txakurrak hezurrak lurperatu ditzakete

Itziarrek ekar dezake material guztia

Gorkak aurkitu ditu zure betaurreko berriak

Kepak hainbat gauza ikas ditzake azterketarako

Zapata berriak autobusean ahaztu ditut

Medikuaren kontsultan aldizkariak irakur ditzakezu

Xabierrekin jolas zaitezkete

Fermin, batu itzazu zure jantzi zikin guztiak!

Martak amonari laguntzen dio beti

Buka ezazu gosaria behingoz!

Azkarrago egin dezakezu korrika

Lapurrek ihes egin zuten

6. Bete hutsuneak, aditzak modu egokian jarriz:

- Kosme (**joan, ahalera**) atzerrira, nahi badu
- (**bota, agintera**) hori zakarrontzira!
- Gizonak dirua (**atera, indikatiboa**) ordaintzeko

7. Lotu egoerak eta aginduak

Suhiltzaileak ate aurretik kendu zaitu	.	. Esan ezazu ozen!
Anaiak mugikorra hartu dizu	.	. Mugi hortik!
Aitonak ez dizu entzuten	.	. Ekar ezazu hona!